

Liburuak eta poemak idatzi zituen, eta euskaltzain izan zen Juan San Martin, baita Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lehen arartekoa ere. Gaur 100 urte bete dira jaio zenetik.

Omen 'Otsalar' «nekaezinari»

Iñaut Matauko Rada

Ehun urte bete dira gaur Juan San Martin (Eibar, Gipuzkoa, 1922-Hondarribia, Gipuzkoa, 2005) jaio zenetik. Idazlea eta poeta zen, eta *Otsalar* ezizenarekin idatzi zituen olerkiak. Euskaltzain eta akademiako idazkari ere izan zen. Eibarko Udalak eta Euskaltzaindiak omenaldi bat egin zioten atzo, eta «ekintzaile nekaezina» izan zela gogorazti dute.

Miguel Primo de Riveraren diktaduraren aurretik jaio zen San Martin, eta haren haurtzarora gatazkak markatu zuten. Lehen Mundu Gerra amaitu eta gutxira jaio zen, beraz, eta 10 urte bete aurretik Espainiako Bigarren Errepublikaren aldarrikapenak bete-betean harrapatu zuten. Eibaren. Hala ere, *Jakin* aldizkarian egin

zioten elkarrizketa batean aitortu zuten garai horretan ez zela asko jabetzen egoeraz: «Bi urte zaharragoa zen anaiak goizeko seieta esnatu eta esan zidanean errepublika etorri zela, erantzun nion: 'Zein da errepublika?'».

Ideologikoki, familia plural bateko kidea zen San Martin. Aita espainiarra zuen, liberala, eta aitona, ezkertiarra eta liberala, baina familiarteko abertzaleak ere bazituen. Hori dela eta, Batzokian eta Casa del Pueblon ibiltzen zen.

Etxean eta kalean euskaraz egiten zuen beti, baina eskolan «den-dena erderaz» egiten zuten. Nagusiek ikasleei esaten zieten munduan hizkuntza bakarra egitera jo behar zela: «Sozialista gehienak joera horretakoak ziren, esperantozaleak, eta nire lagunik gehienak ere bai», zioen San Martinek, baina bera ez zuten



Eibarko Udalak eta Euskaltzaindiak San Martini atzo egin zioten omenaldia. JAIZKI FONTANEDA/FOKU

konbentzitu. Izan ere, asko irakurri ostean, ez zegoen ados, eta munduan hizkuntza bakarra erabiltzea «utopia» zela uste zuen. Pentsamendu horrek asko baldintzatu zuen haren bizitza eta jarduna.

1989. urtean Eusko Jaurlaritzak ararteko izendatu zuen, eta hutsetik abiatuta Arartekoa erakunde sortu behar izan zuen. Handik bost urtera, Europako ararteko buru izendatu zuten. EIE Euskal Idazleen Elkarte eta EIZIE

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen elkarteon sorrera sustatu zuten.

Euskaltzaina eta poeta

1950eko hamarkadan hasi zen artikuluak argitaratzen, gaztelerez gehienbat, orduan ez zuelako «nahikoa gaitasunik» euskaraz idazteko; mendiaz eta kirolaz idazten zuen gehienbat. Urteak pasatuta, 1959an atera zuen lehen liburua: *Juan Antonio Mogel. Bere bizitza ta lanak*. Olerkiak

ere idatzi zituen, *Otsalar* ezizenarekin; Euzko Gogoan argitaratu zituen lehenak, eta, gero, Santi Onaindiaren *Oleri* aldizkarian gehienak. Txabi Etxebarrieta hiletan irakurri zuten olerkia berak idatzi zuen.

Euskaltzaindiarekin 1956an izan zuen lehen kontaktua, Eibarko hitz teknikoen bilduma bidali baitzuten akademiara. 1964an euskaltzaino oso izendatu zuten, eta 1967tik 1978ra bitartean akademiako idazkari izan zen.

Ezohiko eta Ohiko Batzar Nagusia

2022ko uztailaren 15ean
12:30ean

Arriola pasealekua 26, Ibaeta auzoa
(Pakea Klinika)
Donostia

Izen-ematea: 944 252 503
cgutierrez@mutualia.eus

Ekitaldian parte hartzeko premiarren bat bedazu, esan diezaguz helbide elektronikoa honetan: inklusiona@mutualia.eus

#mutualiakm0

MUTUALIA · Gizarte Segurantzarekin Lankidetzan duen 2. ziklo Mutuaren Zuzendaritza Batzarreko, 2022ko martxoaren 29an egindako bilkuran, 8/2015 Legearen 22. artikuluan (arriaren 30eko) 86. artikuluan eta Estatutuaren 22. eta 23. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, enpresari bazkide guztiak Ezohiko eta Ohiko Batzar Nagusian biltzea erabaki zuen. Batzar Nagusiak elkarren segidan egingo dira, uztailaren 15ean, 12:00etan lehen deialdian eta 12:30ean bigarren deialdian, Donostian, Ibaeta auzoan Arriola pasealekua 26 helbidean (Pakea Klinika), gai-zerrenda honen arabera:

Ezohiko Batzar Nagusiaren gai-zerrenda

1. Presidentearen agurra.
2. Hala badagokio, Zuzendaritza Batzarreko proposatuta, Erakundearen indarrean dauden Estatutuaren aldaketak onartzea, artikulua hauek aldatzeko: 1, 3, 6, 26, 27, 2, 34 eta 35.
3. Aurreko proposamena onartzen bada, berariskoz baimen zabela ematea Zuzendaritza Batzarreari aurreko erabakia gauzatzeko, eta Estatutuaren testuan sartzeko Gizarteratze, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioak proposatutako gehikuntza, aldaketa eta zuzenketa guztiak.
4. Bi kontu-hartzaile izendatzea bileraren akta berretsi eta onartzeko.

Ohiko Batzar Nagusiaren gai-zerrenda

1. Presidentearen agurra.
2. Hala badagokio, Zuzendaritza Batzarrearen kudeaketa aztertu eta onartzea, berri hartuta aldi baterako finantza-inbertsioak, ondare historikoaren zuzkudak eta aplikazioak, Memoria eta Gobernu Korporatiboaren urteko txostena, balantzeak eta 2021eko ekitaldiak emaitzen kontuak, Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailetza Nagusiak egindako auditorerantz-txostenak ezagutu ondoren, bai eta 2021eko ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa eta soberakinaren aplikazioa ere.
3. Hala badagokio, 2023ko ekitaldirako Aurrekontuaren Aurreproiektuaren berri eman eta berri onartzea, eta Zuzendaritza Batzarreari eskumenak ematea Gizarte Segurantzaren Aurrekontuaren proiektuan integartzeko egin behar diren aldaketak egiteko.
4. 2021eko ekitaldiak Prestazio Berezien Batzarrearen kudeaketaren txostena.
5. Hala badagokio, Gobernu Korporatiboaren Politika Deklarazioaren aldaketa aztertzea eta onartzea.
6. Zuzendaritza Batzarreko kideak izendatu eta aldatzea.
7. Bi kontu-hartzaile izendatzea bileraren akta berretsi eta onartzeko.
8. Presidentearen hitzak.
9. Galde-eskak.

Estatutuak aldatzeko proposamena azaltzen duen testua eta azalpen-memoria, aldi baterako finantza-inbertsioen txostena, Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailetza Nagusiak egindako memoria, balantzeak, emaitzen kontuak eta auditorerantz-txostenak Mutuaren web-orrian (www.mutualia.eus) kontsultatu ahaliko dira. Batzar Nagusiak egin aurretiko 15 egunen barnean, Mutualiari jakinarazi behar izango dira, edozein ere, jakinarazi den egunetik kontatzeko hasita.

Legitimazioa zuzentzeko aplikagarriak diren formak eta baldintzak:

Mutuallaren bazkide diren enpresari guztiak bertaratu ahaliko dira, baldin eta haien elkarte-hitzarmena indarrean badago Batzar Nagusiak egingo diren eguneari aurreko, alabaina, beren bazkide-betebeharrak eguneko dituztenek soilik izango dute botoa eskubidea. Era berean, bertaratzeko eta botoa emateko eskubidea izango dute atxikitako langileen ordezkariak, Bortaratzeko eta Botoa emateko eskubideak erabiltzeko dagokionez, jakinarazten da Mutuallaren egoitza sozialean eta egoitza operatiboan kontrol-erregistro bat dagoela, zeina Batzar Nagusian deialdiaren eguneko eguneratuko den. Erregistroa horretan, enpresari bazkideen eta beren bazkide-betebeharrak eguneko daukiden datuak agertzen dira. Era berean, betebeharrak epaizatzeko, bazkide-dokumentua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaran zientzifikoki arakutsi daitezke. Mutuallaren bazkide diren enpresariak, Batzar Nagusietara beren kabur edo ordezkari moduan joan nahi badute, «Bertaratzeko» edo botoa ordezkartzeko emateko txartela izan behar dute. Txartela Mutuallaren aipaturiko edozein zentrotan jaso daiteke, edo gure web-orrian eskatu (www.mutualia.eus). Bazkide den beste ordezkari batek, presidentek edo Zuzendaritza Batzarreko edozein kidek soilik eman dezakete botoa ordezkartzeko.

Bilbon, 2022ko martxoaren 29an
Zuzendaritza Batzarreko
PRESIDENTEA